

Askatasuna, zertako?

Alderdi, 261. zk., 1971-03.

Datorren Aberri-Egunean ba dugu askatasun billa nora joana: Bilbora. Denok ezagutzen ditugu askatasunaren zanpaketak berekin dakarzkina kalteak, denok bizi bait ditugu, batera edo bestera, espetxearen miñak. Espetxea ez da, gero, burnizko leio-atez egiña bakarrik izaten; askatasun-esaz nabaitzen diren ondore mingarri guziek dira espetxe-miñak. Ala ere, ba dira, ezin ukatu, gure artean askatasuna zertarako den galdezka irripar elbarri batez begira geratzen diren ustelak ere.

Ezin dugu, ez, Iturralde eta Suit-ek aitatu zigun txoria astu: kaiolan azia eta ezia izan zen txoriak egin gabe bizitzera oitu egin zen.

Gizona ez da, ala ere, txoria; ba du gizonak txoriak ez duan doai bat: adimena. Ba daki pentsatzen duen gizonak mundu au ez-dela esaten diguten eragozpen-burni-sarez inguratutako espetxea, ezin litekeala Jaungoikoak eman digun burua besteak pentsatzen duanera makurtzeko bakarrik egiña izan, ez diola mingaiña besteak agintzen diotena bakarrik esateko egin, ez diola biotza beste gizonak (eta bere menpean eduki nai duan gizonak) agintzen dion neurrian bakarrik sentitzeko biotza sortu.

Eta ala ere, batzuk ba diote, eta askotan fede onez: *azkatasuna, zer egiteko?*

Georges Bernanos-ek ere egin zuan galdera berau 1953-ean argitaratua izan zen liburu eder batean (*La liberté, pour quoi faire?*, Gallimard), eta zertarako?... eta orduan zertarako Euskalerrria? zertarako Europa? zertarako gizonak gizonenganako bear dela esaten dugun errespetoa?

Zer giñake, ba, gizonak, bata-bestearekiko bear dugun errespeto au ez ba gendu, pixtiak baizik?

Gure erria miñak joa dago aspaldi, eta askotan ikusten ez badugu ere, zure erritar baten kalteak gureak dira, gure aldamenekoa zanpatzen duen malizi-indarrak guretzeko ere kaltegarri dira; euskaldun bat jotzen duen gezurra zu ere zikintzen gaitu; guk ezagutzen ez dugun ama baten negarrak gurea ere malkorako bidean jartzen du. Giroak (gezur-giroa dela, bildur-giroa dela) orain edo geroan eta gure buruan edo gure seniden batean ukuituko baigaitu.

Elkar lokarrikatuta, elkar izateko, egiña izan da gizartea.

Baliteke irakurtzen ari zeran euskaldun orrek gaur egunez espetxean zure seniderik edo lagunik edo ezagunik ez izatea; zail-zailla da, baiño egin zazu kontu alaxe dela. Eta uste duzu, bear bada, espetxetik libro zerala eta zure anai-arreba bat edo seme-alaba bat ez duala oraingo giro beltz onek espetxeratuko. Eta pentsatuko duzu, bear ba da, zu arnasean arten ari zeran aideak kutsurik ez duala, emen eta an gaitzak jotzen ari den miñak ez zaituala zu joko, gaur-emen eta biar-an kutsutsen ari den gezurra ez dela iñoiz zugaraiño iritxiko, eta gaur bat eta biar beste azpiz egiten ari den ustelkeriak ez zaituala zu irabaziko. Eta halaxe bada, zorionak!; beraz, mundu onetako kalteetatik libro zera.

Nork daki, baliteke mundu onetatik kanpora, illik, egotea ere!

Baiña guk uste eta nai bezala zuk zere burua gure erriaren parte sentitzen baduzu, konturatuko ziñen askar asko gorputz-anima osasuneko gaitzak zu ere irixteko arriskoa zeudela, eta orduan gure erriko giza-emakumeak nekean jarri ditunak ba dutela zurekin zer-ikusia, eta beroiek ba dutela zure zer-ikusiaren bearra, gai askotan bat direla, zure anai-arreba direla, zure gorputz-aragi eta anima direla.

Ala bada, gogora zaite datorren igandean Pasko Eguna dela, Berpizkunde eguna dela, Askatasun eguna dela.

Euzkadiko askatasun onek ba du, beraz, espetxean dauden askatasunarekin zer-ikusia. Pentsa zazu noraiño arriskatzen zaituan. Ez akiozu iñori ezer galdetu, galde akiozu zure buruari, eska akiozu zure elkartasun eragiñak eta zure arriskuak merezi dituan, ia zuri Bernanos-ek egindako galderak: "askatasuna, zertarako?", gaurkotasunik eta eragiñik ba duan, ia zu Euskalerrria zeran, zertarako jaio ziñan ba dakizun, gizona zergatik izan nai duzun, egin zergatik maite duzun, eta zure guraso, seme-alaba eta lagunei errespetoa, itzal eta maitasuna zor diozun.

Gu Bilbon izango gaituzu Aberri-Eguna.

Zuk egitaz derizkiozuna egin zazu; ez duzu zure burua besterik engaiñatuko.